

ARGOMANIZKO ADIERAZPENA

Tokiko politikan emakumeenganako indarkeria
eta jazarpen sexista aurkako adierazpena

Kuotagatik dago hor
Es demasiado dura, debería
sonreír más Nahi handiegikoa
Neskatxak ados daude?
Si se viste así, ¿cómo la van a tomar en serio?
No está preparada
Lasai hartu, neska que deje
de hablar de feminismo y se ponga a trabajar

**BASQUESKOLA SAREKO
TOKIKO EUSKAL EMAKUME
HAUTETSIEK ADIERAZPENA
ADOSTU GENUEN
ARGOMANIZEN 2022KO
ABENDUAREN 1EAN.**

KONTUAN HARTUTA:

Politikan dauden emakumeen aurkako indarkeriak eta jazarpen sexistak emakumeek politikan parte hartzeko eta ordezkaritza izateko duten oinarriko eskubidearen aurka egiten dutela honako hauek mugatu, deuseztatu edo kaltetuz¹:

- Hauteskunde eskubide eta politikoen egikaritze efektiboa.
- Karguari, lanari edo jarduerari dagokien eskuduntzak erabat betetzea.
- Funtzio publikoaren garapen askea.
- Erabakiak hartzea.
- Antolatze askatasuna.

Emakumeen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (1979) eta Espainiak 1981ean zehazki 7. artikuluan berretsitako bere Protokolo Fakultatiboa. Artikulu horrek bizitza politikoan eta publikoan emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko neurriak hartu behar direla onartzen du.

Erromako Tratatu (1957), Europar Batasunaren Tratatu- Maastricht-eko Tratatu (1992), Amsterdamgo Tratatu (1997), Nizako Tratatu (2001) eta Lisboako Tratatu (2007) emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa europar herritartasunaren kontzeptzioaren zutabeetako bat da.

Istanbulgo Hitzarmenaren 3. artikulua, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa eta emakumeen aurkako diskriminazio modu gisa definitzen duela, eta generoan oinarritutako indarkeria ekintza guztiak

izendatuko dituela, hala nola, emakumeei kalte edo sufrimendu fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak eragiten dizkietenak edo ekar dezaketenak, baita bizitza publiko edo pribatuan ekintza horiek egiteko mehatxuak, hertsapenak edo askatasun gabetze arbitrarioak ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 54. artikuluan, "genero-indarkeria politikoa" emakumeen aurkako indarkeria matxista gisa jasotzen da.

Gaur egun emakumeen aurkako indarkeriari eta genero-indarkeriari buruzko Europar Batasunaren Zuzentarauaren proposamena ere ikusgai egiten ari dela eta txertatzen ari dela NBE Emakumeen² gomendioen testuetan eta baita Tokiko Bizitzan Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Europako Gutunaren testu eguneratua ere.

EAEko emakume hautetsien parte-hartze politikorako baldintzak hobetzeko Basqueskolako 1.2 konpromisoak premiazko zat jotzen du tokiko politikan emakumeen aurkako edozein indarkeria sexista desagerrarazteko lan egitea. Horretarako, kontzientziazio-, prebentzio-, pilaketa- eta ebazpen-estrategiak garatzea proposatzen du.

garatuz, eta benetako berdintasun-printzipioetan oinarritutako jokabide kode etikoak hartzea sustatuz.

¹ Atenea proiektua, politikan emakumeenganako indarkeria matxista: prebenitu, jarraipena egin, zigortu eta ezabatzeko ibilbide orria. PNUD; NBE Emakumeak; IDEA Internacional, Instituto Internacional para la Democracia y la Asistencia Electoral)

² Politikan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko ohar orientagarria, NBE Emakumeak Lider eta Gobernantza Atala, New York, 2021eko uztaila

ESKATZEN DIEGU:

Gizarteari, oro har

jabetu eta ikusaraz dezala kargu publikoen egikaritzan emakume hautetsien aurkako indarkeria haien giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen urraketa dela.

Komunikabideei,

iritzi publikoaren sentsibilizazioa eta politikan emakumeen aurkako indarkerian oinarritutako estereotipoak arintzeko neurriak susta ditzaten; komunikabideetan kanpainak egin, eta politikan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko emakumeen ahalduntze ekimeneen ikusgarritasuna areagotu.

Plataforma digitalak arautzen dituzten eragileei,

politikan emakumeen aurkako indarkeria jarrerak izaten dituzten argitalpenak kentzeko sare sozialetan arau komunitarioak betearazi eta hobetu ditzaten. Halaber, sare sozialen erabiltzaileei politikan emakumeen aurkako mezu sexistak baztertzeko eta identifikatzen jakiteko eskatzen diegu.

DEIA EGITEN DIEGU EAeko tokiko emakume hautetsi guztiei elkarri laguntza aktiboa eman diezaiozen gure genero interesen, emakumeen eskubideen eta ahalduntze kolektiboaren inguruan, gure Basqueskola sarea sendotuz, beste emakume sare batzuekin batera, maila politikoan, teknikoan, asoziatiboan eta profesionalen.

BAT EGITEN DUGU

Azkenik, GONBITA EGITEN DIEGU euskal tokiko hautetsi guztiei Adierazpen honi atxikitzeko.

Politikan parte hartzen duten pertsona guztiak

isiltasunaren kultura geldiaraztea, genero elementuetan oinarritutako indarkeriarik edota jazarpenak gaitzetsiz, egin izanagatik edota ez ikusiarena egin izanagatik.

Alderdi eta erakunde politikoei,

politikan ari diren emakumeei zuzendutako jazarpen sexista eta indarkeria detektatzeko, prebenitzeko, artatzeko eta desagerrarazteko mekanismoak abian jar ditzatela.

Erakunde eta udalei

Eskatzen diegu beharrezko neurri legegileak, arauemaileak edo bestelakoak har ditzatela tokiko politika eraginkorrak, globalak eta koordinatuak abian jartzeko (Istanbulgo Hitzarmenaren aplikazio-eremuan sartzen diren indarkeria-mota guztiak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurri egoki guztiak barne), emakumeen aurkako indarkeriari erantzun globala emateko.

[Sinatu hemen](#)